

UEMA eta Kontseiluaren arteko lankidetzaren hitzarmena

Jon Bollar Intxausti jauna, *UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen* Lehendakaria, Aulestiko Donibane plazan helbideratua..

eta bestetik, Xabier Mendiguren Bereziartu jauna, *Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko* Idazkari Nagusia, Kontseiluaren izenean.

Bi aldeek elkarri onartzen diote hitzarmen hau izenpetzeko bakoitzak duen gaitasuna eta honako hau izenpetzen dute:

ADIERAZTEN DUTE

Kontseiluaren eginkizun nagusia honako hau da: Euskararen normalkuntza edo berreskurapen osoa lortzea Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean. Bestetik eta helburu hori erdiesteko honako egiteko edo funtzioak bere gain hartzen ditu: Euskararen inguruan gogoeta eragitea, ikuspuntu sozialeko plangintza orokorra bideratzea, euskalgintzaren berrikuntza eta indarketa bultzatzea, euskalgintzaren gogoetak eta mezuak gizarteratzea, gizarteko agente erabakigileen aurrean eragin soziala bideratzea. Ildo horretan, 1999. urtetik hona helburu hori lortzeko zenbait urrats egin dira jadanik, besteak beste: Bai Euskarari Akordioa sinatzea, Euskararen Normalizaziorako Konpromiso Politikoa sinatzea, Euskararen Normalizaziorako Plan Estrategikoa abian jartzea eta enpresen eta erakundearen artean Bai Euskarari Ziurtagiria sustatzea.

Kontseiluaren lan-ildoetako bat udalen hizkuntza-politikaren azterketa da. Ildo horretan lanean aritu da azken urteotan eta hainbat ekarpen egin ditu: besteak beste, udalen hizkuntza-politika neurgailu bat sortu eta 66 herritako hizkuntza-politika neurtu du, Akordio Soziopolitikoekin adosturik *Euskararen ordenantza eredugarriak* arau-markoaren proposamena sortu du.

Egindako udalen hizkuntza-politikaren azterketa, *Kontseiluak* sortu zuen neurgailua oinarrizko tresna izanen da. Neurgailua elementu objektiboetan oinarritzen da, eta arau-markoa, baliabide zein egoeraren ebaluazioa egiten du. Baina, ebaluazioa neurtzeko tresna izateaz gain, hizkuntza-politikak hobetzeko tresna ere bada, hizkuntza-politikaren adierazleak diren oinarrizko elementuak identifikatzen dituelako. Azkenik, tresna honen beste onura da, neurketa honek aukera ematen duela udal baten emaitzak neurtutako gainerako udalekin alderatzeko.

Bide horretan sakontzeko, oraingoan *Kontseiluak* udalen hizkuntza-politikaren neurketa herri gehiagoetara zabaltzeari ekin dio, ekimena Euskal Herriko ahalik eta herri gehienetan ebaluazio hau hedatzeko, Euskal Herri mailako argazki hau osatzeko bidean.

1991. urtean *UEMAk* martxan jartzearen oinarrizko arrazoiak ondorengo hauek izan ziren:

» Gune euskaldunetan euskararen erabilera arlo sozial guztietara zabaltzea eta udal euskaldun guztiekin euskara nagusi izango den lur gunea antolatzea.

» Udalerrri euskaldunen eginkizuna garrantzi handikoa da euskararen normalizazio prozesuan. Euskarak, biziko bada, berez nagusi izango den lur gunea behar du, eta hori zelanbait gauzatuko litzateke udalerrri euskaldunak batuko balira. Hau da, Euskal Herrian euskara egoera minorizatuan badago ere, udalerrri euskaldunetan euskara da nagusi eguneroko harreman arruntetan behintzat.

» Udalerrri euskaldunetan (euskaldunak %70etik gora) 200.000tik gora euskaldun bizi da eta hizkuntz planifikazio aurrerakoia egin daiteke udal euskaldunetan, normalizazio bidea erdaldunetan baino errazagoa delakotz. Izan ere, udal euskaldunetan berezko euskal sareek (familia, lagunartea, eskola, administrazioa, gizarte zerbitzuak, lan mundua...) erraztu eta ahalbideratu egiten dute euskararen erabilera.

Sorrerako arrazoiak kontuan hartuta, UEMAk udaletara begira egiten du bere lan nagusia, udal barruko euskararen erabilera normalizatzeraz. Eta horregatik 2000. urtetik hona udal barruko euskararen erabilera planak lantzen gabiltza, hizkuntz irizpide sendoak landuz, euskararen erabilera handitzeko.

Alde horretatik, egokia iruditzen zaigu Kontseiluarekin elkar lanean udalen hizkuntza politika neurtzea eta, bide batez, udalek onartutako hizkuntz irizpideen betetze maila neurtu ahal izatea.

Adierazitako guztia aintzat hartuta, bi alderdiek hitzarmen hau izenpetzea erabakitzen dute, ondoko hitzarkin hauen arabera:

HITZARKINAK

Lehen.- Euskararen normalizazioa helburu, **UEMA** honako konpromiso hauek hartuko ditu:

- 1.- **UEMA** bat etorri nahi du **Kontseilua** udalen hizkuntz politika egokiak lortzeko abiatu duen dinamikarekin.
- 2.- Bide horretan, **Kontseilua** burutzen ari den hizkuntz politikaren ebaluazioa babesten du eta, bere aldetik, **UEMA** herrietan ebaluazioa aplikatzeko beharreko laguntza teknikoa eskaintzeko borondatea adierazten du **UEMA**.
- 3.- Halaber, **Kontseilua** egindako ebaluazioa abiapuntu, **UEMA** udalerrien administrazioen hizkuntz politikan egon daitezkeen gabeziak konponbidean jartzeko konpromisoa hartzen du **UEMA**.

Bigarrena.- **Kontseilua**, bere aldetik, prozesu honetan beharreko baliabideak jartzeko konpromisoa hartzen du:

- 1.- Udalaren hizkuntz politikaren 1. neurketa egin ondoren, udalerrri horien hizkuntz politikan ematen diren aldaketen jarraipena egiteko.
- 2.- Aurrerago 2. neurketa egiteko, egondako eboluzioa aztertzeke.

Hirugarrena.- Euskararen normalizazioak ezinbestekoak du erakunde publiko eta herri ekimenaren elkarlana, horixe baita oinarri bakarra, normalizazio prozesua arrakastaz burutzeko. Horretaz kontziente eta espiritu horrek kutsaturik, hemen planteatzen den lanaren izaera iraunkorra kontuan hartuta, bi aldeek, hala nahi badute, urtez urte berrituko dute hitzarmena.



Xabier Mendiguren
Kontseiluko idazkari nagusia



Jon Bollar Intxausti
UEMAko Lehendakaria